

## Zuloaga etxeko lanak maiatzean hastea espero du Hondarribiak

**Kultura arloak 1,66 milioi euroko aurrekontua du aurten, Udalaren %10a**

HONDARRIBIA. Zuloaga Etxeko liburutegia berritu eta alboko eraikinera zabaltzeko lanak maiatzean hastea espero du Hondarribiko Udalak. Hala esan du Txomin Sagarzazu Kultura zinegotziak bere arloko aurrekontuen aurkezpenean.

'Udal artxiboa Kultur Etxeko behealdera eramateko lanak ia amaituta daude eta liburutegiaren zerbitzua behin-behineko kokapena izango diren modulueta eramateko kontratuaren plegua prestatzen ari gara', esan du arlo honetako buru den zinegotziak.

Udaletik 'plegu hori prestatu, lehiaketa prozesua aurrera eraman, liburutegiaren leku-aldatze hori burutu eta obra esleitu eta Zuloaga Etxeko zaharberritze hori martxan maiatza aldean izatea kalkulatzen dutela esan du Txomin Sagarzazuk.

Arloko aurrekontuari dagokionez, Kulturak 2013 honetan 1,66 milioi euro ditu, 'udal aurrekontuaren %10a; jardueretarako %10eko beherapenarekin eta diru-laguntzatarako %9ko igoerarekin', azaldu du zinegotziak..